Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2018ko irailaren 18a, asteartea — 180 — Martes, a 18 de septiembre de 2018

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## ORMAIZTEGIKO UDALA

*Iragarkia*

Udalbatza Osokoak 2018ko uztailaren 23an «Ormaiztegiko udalerrian kanpalekuak eta kanpaldiak arautzen dituen Udal Ordenantza»-ri hasierako onespena eman zion. Toki Erregimenaren Oinarrien Legearen 49 b) artikuluak xedatutakoa betez, aipatu onespena jendaurreko erakustaldian ezarri zen, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean azaltzen den biharamunetik hogeita hamar eguneko epean, interesatuek erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

Epe honetan alegaziorik izan ez denez, aipatu Ordenantza behin betiko onartutzat ematen da eta argitara ematen da.

*Ormaiztegi udalerrian kanpalekuak eta kanpaldiak arautzen dituen Udal Ordenantza.*

Ordenantza honetan jasotako araudiaren helburua udalerrian antolatu gabeko kanpaldiak agertzearen ondorioz izandako zenbait arazori konponbidea ematea da.

Azaldutakoaren eraginez, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. eta 84. Artikuluek emandako ahalmenak erabilita, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Kanpinen Antolamenduari buruzko 41/81 Dekretua aldatu zuen uztailaren 27ko 178/1989 Dekretuaren bidez aldatutako Euskal Autonomia Erkidegoko Kanpinen Antolamenduari buruzko martxoaren 16ko 41/1981 Dekretuak, 1979ko 3. lege organikoan jatorria duten ahalmenak baliatuta emandakoak, 10., 36., eta 21. artikuluetan gai honi buruz jasotako aurreikuspenei kalterik egin gabe, dekretu hori gaur egun indarrean dela eta 1989ko abuztuaren 23ko 157/1989 *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian* («*Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*») argitaratuta dagoela eta 4.1. artikuluan «Kanpaldi librea debekatuta dago» zehazten duela kontuan hartuta, Udalak, hemen transkribatzen ari garen Ordenantzaren bitartez, Ormaiztegiko udalerrian kanpalekuak eta kanpaldiak arautu ditu, ondorengo artikuluen bitartez:

*1. artikulua.*

Ezingo da kanpaleku edo kanpaldi librerik jarri eta ezingo dira horiei lotu dakizkiekeen jarduerak gauzatu Ormaiztegi udalerrian.

*2. artikulua.*

Kanpaldi libre gisa hartuko da aterpe mugigarriak, autokarabanak, karabanak, camperrak, kanpin-dendak eta erraz garraia daitezkeen edo desmuntagarriak diren antzeko elementuak jartzea araututako edo horretarako bereziki prestatutako eremuetatik kanpo. Kanpaldi libre terminoan barneratuta dago Ormaiztegi udalerriko bide edo espazio publikoetan gaua igarotzea.

Ordenantza honen eraginetarako, camper gisa hartuko dira kabina karga osokoa eta barnealdea autokarabana moduan prestatuta daukaten serieko garraioko furgonetak, edo gaua pasatzeko prestatutakoak. Ordenantza honi dagokionez, autokarabanaren parekoa da.

## AYUNTAMIENTO DE ORMAIZTEGI

*Anuncio*

Aprobada por el Ayuntamiento Pleno, con carácter inicial, en sesión celebrada el 23 de julio de 2018, la «Ordenanza reguladora de campamentos y acampadas en el término municipal de Ormaiztegi», en cumplimiento del art. 49 b) de la Ley reguladora de Bases de Régimen Local, y expuesta a información pública por plazo de treinta días desde el día siguiente a la publicación de este anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, para la presentación de reclamaciones y sugerencias.

Transcurrido el plazo de información pública sin producirse alegación alguna, la citada Ordenanza se entiende aprobada definitivamente, por lo que se procede a su publicación.

*Ordenanza Municipal reguladora de campamentos y acampadas en el término municipal de Ormaiztegi.*

La regulación que se contiene en la presente ordenanza pretende dar una solución a algunos de los problemas que han surgido, debido a la aparición de acampadas no organizadas en el término municipal.

Por lo expuesto, en uso de las facultades concedidas por los artículos 49 y 84 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local, y el artículo 55 del Real Decreto Legislativo 781/1986, de18 de abril, y sin perjuicio de las previsiones que en esta materia se contienen en el Decreto 41/1981, de 16 de marzo, sobre ordenación de campings en el País Vasco, dictado en uso de las facultades dimanantes de la ley orgánica 3 de 1979, en sus artículos 10, 36 y 21, modificado por Decreto 178/1989, de 27 de julio, de modificación del Decreto 41/81, sobre Ordenación de Campings en el País Vasco, actualmente en vigor, publicado en el Boletín Oficial País Vasco («*Boletín Oficial del País Vasco*») 157/1989, de 23 de agosto de 1989 y cuyo artículo 4.1, señala que: «Queda prohibida la acampada libre», se regula por este Ayuntamiento mediante la Ordenanza que se transcribe los campamentos y acampadas en el territorio del municipio de Ormaiztegi, de acuerdo con el siguiente articulado:

*Artículo 1.*

No podrán situarse campamentos o acampadas libres ni podrán llevarse a cabo actividades asimilables a las mismas en el término municipal de Ormaiztegi.

*Artículo 2.*

Se entiende por acampada libre la instalación de uno o más albergues móviles, autocaravanas, caravanas, camper, tiendas de campaña u otros elementos análogos fácilmente transportables o desmontables fuera de los lugares regulados o zonas específicamente habilitadas. Queda incluido en el término acampada libre, pernoctar en el término municipal de Ormaiztegi, en la vía o en espacios públicos.

A los efectos de la presente ordenanza, se entiende por Camper la furgoneta de transporte de serie con la cabina de carga completa y el interior acondicionado como autocaravana. Con respecto a esta ordenanza se asimila a la autocaravana.

EK\CV GAO-I-2018-06198

*3. artikulua.*

Ordenantza honetan aurreikusitako eraginetarako, kanpaldi libreari lotu dakizkiokeen jarduera gisa hartuko da dagokien bizigarritasun-baimena ez daukaten lokaletan, lantegietan edo pabilioietan ostatu hartzea.

*4. artikulua.*

Kanpaldi librearen edo hari lotu dakiokeen jardueraren sustatzailetzat hartuko dira:

Lursailak titulartasun publikoa badu, kanpaldian parte hartu dutenak.

Jabetza pribatuko lursaila bada, kanpaleku gisa erabilitako lursailaren, lokalaren, lantegiaren edo pabilioiaren jabeak.

Kanpaldiaren sustatzaile izaera hori kontrakoa adierazten duen idatzizko jakinarazpen baten bitartez suntsi daiteke. Bertan, Udalari adieraziko zaio kanpaldia baimenik gabe egin dela eta Udalaren laguntza eskatuko da jendea bertatik aterarazteko.

Jakinarazpen horrek adierazitako eragina izan dezan, interesdunak higiezinaren legez kontrako okupazioagatik edo hornidurare erabilera ez-baimenduagatik aurkeztutako salaketaren fotokopia atxiki beharko dio.

*5. artikulua.*

Debekatuta dago bide publikoetan, artikulu honetako azken paragrafoan aurreikusitako salbuespenarekin, ondorengoak aparkatzea edo kokatzea udalerri osoan, pertsonak, merkantziak edo gauzak eramateko eta garraiatzeko erabiltzen ez direnean: karabanak, roulotteak, autokarabanak, ibilgailu bereziak, gurdi traktoreak, lanetarako edo zerbitzuetarako makinaria, atoiak eta erdi-atoiak, ibilgailu traktorearen bereizgailuak, antzeko ezaugarriak dauzkaten ibilgailuak eta kanpinerako erabil daitezkeen gainerako ibilgailuak –etxebizitza gisa erabil daitezkeenak, Ibilgailuen Araudi orokorra onetsi zuen 2822/1998 Errege Dekretuaren II. eranskinean zehazturikoari jarraiki–.

Eragin horietarako, aparkatutako autokarabanaren eta kanpatutako autokarabanaren arteko bereizketa egin da eta lehena baimenduta dago.

Autokarabanak aparkatutzat hartuko dira, eta ez kanpatutzat, ondorengo kasuetan:

1. Lurzoruaren gainean gurpilak soilik baditu (ez daudenean jaitsita egonkortzeko hankak edo bestelako edozein tramankulu).

Zenbait kasutan, aparkalekua maldan dagoenean edo alde batean inklinazio handia daukanean, gurpilen euskarriak jartzea justifikatuta egon daiteke ibilgailuaren segurtasuna hobetzeko.

2. Autokarabanak itxita betetzen duen espazioa baino handiagoa hartzen ez badu, hau da, ez badago leihorik zabalik (orridun leihoak edo leiho proiektagarriak, ibilgailuaren perimetroa baino handiagoa den espazioa har dezaketenak), aulkirik, mahairik, toldorik zabalduta, eta abar.

3. Ez baldin badago inolako fluidoren isurketarik, kutsagarria izan edo ez izan, motorraren errekuntzak ihes-hodiaren bitartez botatakoak salbuespen gisa hartuta, edo gizalegez jokatzen ez denean edo/eta ekintza osasungaitzak gauzatzen direnean, esaterako, bide publikoan ura hustea. Ez baldin badu zarata gogaikarririk egiten, esaterako, elektrizitate-sorgailu bat martxan jartzea, atsedenerako ordutegian edo, egunean zehar, denbora-tarte luzeegitan.

Autokarabanak ostatu gisa erabiltzea baimenduta dago, gehienez, 48 orduko epean, betiere:

1. Horretarako finkatutako mugen barruan eta udal arauen (edo trafikoko arauen) arabera kokatuta baldin badaude.

*Artículo 3.*

A los efectos previstos por esta ordenanza, se considerarán actividades asimilables a la acampada libre el alojamiento en locales, naves o pabellones que no dispongan de la correspondiente licencia de habitabilidad.

*Artículo 4.*

Se presume promotor de la acampada libre o de la actividad asimilable a la misma:

Si se trata de terrenos de titularidad pública a los acampados.

Si se trata de terrenos de propiedad privada, al propietario de la parcela, local, nave o pabellón en que se ubique el campamento o se realice la acampada.

La presunción de la condición de promotor de la acampada puede destruirse por comunicación escrita en sentido contrario mediante la que se indique al Ayuntamiento que la acampada no ha sido autorizada y se solicite colaboración municipal para el desalojo.

Para que dicha comunicación cause el efecto señalado, habrá de unirse a la misma fotocopia de la denuncia que haya presentado el interesado por la ocupación ilegítima del inmueble y/o utilización no autorizada del suministro.

*Artículo 5.*

Queda prohibido en las vías públicas, con la excepción prevista en el párrafo último del presente artículo, el estacionamiento de: Caravanas, rulottes, autocaravanas, vehículos especiales, tractocarros, maquinaria de obras o servicios, remolques y semirremolques, separados del vehículos tractor, vehículos de similares características y demás vehículos asimilados de camping, que sean susceptibles de uso como vivienda, conforme a lo establecido en el anexo II del Real Decreto 2822/1998, por el que se aprueba el Reglamento General de Vehículos, en todo el término municipal, cuando de los mismos se haga un uso distinto del simple desplazamiento y transporte de personas, mercancías o cosas.

A estos efectos, se estable la distinción entre autocaravana aparcada y acampada, estando la primera autorizada.

Con carácter indiciario, se considerará que una autocaravana está aparcada y no acampada cuando:

1. Sólo está en contacto con el suelo a través de las ruedas (no están bajadas las patas estabilizadoras ni cualquier otro artilugio).

En determinados casos, cuando el aparcamiento está situado en pendiente o con una inclinación lateral pronunciada, los calzos en las ruedas pueden estar justificados para mejorar la seguridad del vehículo.

2. No ocupa más espacio que el de la autocaravana cerrada, es decir, no hay ventanas abiertas (ventanas batientes o proyectables, que pueden invadir un espacio mayor que el perímetro del vehículo), sillas, mesas, toldos extendidos, etc.

3. No se produce ninguna emisión de ningún tipo de fluido, contaminante o no, salvo las propias de la combustión del motor a través del tubo de escape, o se lleven a cabo conductas incívicas y/o insalubres como el vaciado de aguas en la vía pública. No emite ruidos molestos, como, por ejemplo, la puesta en marcha de un generador de electricidad en horario propio de descanso o durante el día en períodos excesivamente largos.

Se autoriza el uso de las autocaravanas como alojamiento, por un plazo máximo de 48 horas, siempre que:

1. Estén estacionadas en un lugar autorizado dentro de los límites fijados a tal fin y de acuerdo con las normas municipales (o de tráfico).

EK\CV GAO-I-2018-06198

2. Geldirik edo martxan espazio bera betetzen dutenean ibilgailuaren perimetroa gainditzen duten berezko elementuak zabaldu gabe.

3. Ez badute ez zirkulazioa, ez elkarbizitza eragozten.

4. Ez badute auto barnetik datorren fluidorik isurtzen bide publikoan.

5. Ez badute hondakinik uzten edo ez badute ingurumenean inolako kalterik eragiten.

6. Ez badute jantzirik edo begi-inpaktu negatiboa sortzen duen inolako tresnarik zintzilikatzen.

Udalerriaren barruan kokalekua aldatzeak ez du egonaldirako ezarritako gehieneko epea aldatuko.

*6. artikulua.*

Karabanen edo 5. artikuluan adierazitako bestelako ibilgailuen asentamenduak, baita kanpin-dendak, altzariak edo kanpaldia sor dezaketen bestelako elementuak ere, edo horiei lotutako bestelako jarduerak berehala desegingo dira.

Kanpalekuaren edo jardueraren sustatzaileari jakinaraziko zaio lekua uzten hasi behar duela eta higiezina ondoren garbitu beharko duela.

Behar izanez gero, indar publikoen laguntzaz gauzatuko da.

*7. artikulua.*

Ordenantza honekiko kontraesana sortzen duen jarduketa orok ondorengo ondorioak izan ditzake:

1. Udal honek urratutako araua berriz ezartzeko eta aldatutako errealitate fisikora itzultzeko beharrezkoak diren neurriak hartzea.

Kasu horretan, Udalak dagozkion neurri guztiak hartuko ditu eta sustatzailearen konturako izango dira udal ogasunari sor dakizkiokeen gastu, kalte eta galera guztiak, eta dagozkion dirukopuruak bilduko ditu premiamendu-prozeduraren bitartez.

2. Arduradunei zehapenak ezartzea, zehapen-espedientea bideratu ostean, dagozkion zigor mailako erantzukizunei kalterik egin gabe.

3. Agintaritzaren agenteek kanpin-dendaren edo espazio publikoa bidegabe hartzen duen beste edozein materialen jabeei edo erabiltzaileei hori egiteari uzteko eskatuko diete eta, hala ere, dagokien salaketa jarri ahal izango dute.

Ezezkoa jasoz gero edo jabea(k) edo erabiltzailea(k) topatzea ezinezkoa izango balitz, agintaritzaren agenteek elementu horiek bertatik berehala kentzeko beharrezko bitartekoak baliatu ahal izango ditu eta arau-urratzailearen eta, solidarioki, jabeen konturako izango dira sorturiko gastuak.

*8. artikulua.*

Kanpaldiaren sustatzaileak edo sustatzaileek edo, kasuan kasuan, kanpatutako pertsona bakoitzak ondorengo zehapenak izango dituzte:

a) 50 eta 150 euro arteko isuna kanpatutako pertsona bakoitzarentzat.

b) 150 eta 300 arteko isuna ekintza horrekin hiri-altzariak hondatu edo kanpaldiaren eremua eta ingurua bereizi gabe zikindu dutenentzat; gainera, arau-urratzailearen konturako izango da eragindako kalteak konpontzea.

c) 150 eta 300 arteko isuna ur edangarriaren eta argiteria publikoaren sareetan konexiorik egin bada.

2. Ocupen el mismo espacio estacionadas que en marcha sin desplegar elementos propios que desborden el perímetro del vehículo.

3. No causen trastornos para la circulación ni para la convivencia.

4. No viertan fluidos a la vía pública procedentes del habitáculo.

5. No abandonen residuos o produzcan daños medioambientales.

6. No tiendan ropa ni enseres que provoquen un impacto visual negativo.

El cambio de estacionamiento dentro del municipio no modificará el tiempo máximo de estancia.

*Artículo 6.*

Los asentamientos de caravanas y otros vehículos indicados en el artículo 5, así como tiendas de campaña, mobiliario o cualquier otro elemento que generen una acampada o actividad asimilable serán desmantelados inmediatamente.

La autoridad competente comunicará al promotor del campamento o actividad que proceda al desalojo y posterior limpieza del inmueble.

En su caso se realizará con el auxilio de la fuerza pública.

*Artículo 7.*

Toda actuación que contradiga la presente ordenanza podrá dar lugar a:

1. La adopción por parte de este Ayuntamiento de las medidas precisas para restablecer la norma infringida y la restauración de la realidad física alterada.

En este supuesto el Ayuntamiento tomará cuantas medidas correspondan, cargando al promotor el importe de los gastos, daños y perjuicios que se ocasionen a la hacienda municipal, recaudando las cantidades que resulten procedentes por la vía de apremio.También podrán aplicarse a dicho fin los bienes muebles retirados por la Autoridad Municipal, así como al pago de las sanciones que pudieran corresponder, previos los trámites y procedimiento correspondientes.

2. La imposición de sanciones a los responsables previa tramitación del expediente sancionador sin perjuicio de las responsabilidades de orden penal en que se hubiera incurrido.

3. Los agentes de la autoridad requerirán a los propietarios o usuarios de la tienda de campaña, vehículos o de cualquier tipo de material que ocupe indebidamente el espacio público, para que desista de su actitud, sin perjuicio de efectuar la denuncia correspondiente.

En caso de negativa o de imposibilidad de localizar al/los propietario/s o usuario/s, los agentes de la autoridad podrán articular los medios necesarios para la retirada inmediata de los mismos, corriendo en su caso los infractores y solidariamente los propietarios con los gastos que se originen.

*Artículo 8.*

El promotor o promotores de la acampada, o en su caso, cada uno de los acampados, serán sancionados:

a) Con multa entre 50 y 150 euros por persona acampada.

b) Con multa entre 150 y 300 euros para quienes produzcan con dicha actuación deterioro en el mobiliario urbano o ensucien de forma indiscriminada la zona donde se ha producido la acampada y alrededores, independientemente de que la reparación de los daños ocasionados corran por cuenta del infractor.

c) Con multa entre 150 y 300 euros si ha efectuado conexiones a las redes de agua potable y alumbrado público.

EK\CV GAO-I-2018-06198

*9. artikulua.*

Prozedura martxan jartzeko eta ebazteko organo eskuduna Ormaiztegiko Udaleko alkate-udalburua izango da.

*10. artikulua.*

Zehapen prozedura 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Prozedura Administratibo Bateratuari buruzkoak, eta 40/2015 Legeak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoak, xedaturikoaren arabera gauzatuko da.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau behin betiko onespena jaso eta udal iragarkioholean eta «Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean» osorik argitaratu ostean sartuko da indarrean eta indarrean jarraituko du hura aldatzen edo indargabetzen den arte.

Ormaiztegi, 2018ko irailaren 13a.—Jon Enrique Galarza, alkatea. (6198)

*Artículo 9.*

El órgano competente para iniciar y resolver el procedimiento será el Alcalde Presidente del Ayuntamiento de Ormaiztegi.

*Artículo 10.*

El procedimiento sancionador se realizará conforme a lo establecido en la Ley 39/2015 del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas y en la Ley 40/2015 de Régimen Jurídico del Sector Público.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Ordenanza entrará en vigor una vez aprobada definitivamente y publicada íntegramente en el tablón municipal de anuncios y en el «Boletín Oficial de Gipuzkoa», manteniendo dicha vigencia hasta su modificación o derogación.

Ormaiztegi, a 13 de septiembre de 2018.—El alcalde, Jon Enrique Galarza. (6198)

EK\CV GAO-I-2018-06198